7 URTETIK AURRERA



IRATXO TXIKIA
ETA SHATRANJ PARTIDA

Gidoia eta Irudiak: Álvaro Ortiz
Itzulpena: Bego Montorio
Astiberri Ediciones. Bilbo, 2022
Kolorea. Paper-azala azal-hegalekin
168 orrialde. 17 x 21,5 cm. 18 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-18909-12-2

MAIATZAREN 5EAN SALGAI

Nola ikasi iratxo izaten

Cenizas *eta* Murderabilia *albumen egileak umeentzako komikia dakarkigu oraingoan*

Bazen behin ekialde urruneko herrialde bateko sultan bat, iratxo bati bi gurari eskatzeko aukera zuena. Halako batean, Amina alabak eta jauregiko bizimodu bakartiaren tristurak bultzaturik, iratxoari deitzea deliberatu zuen sultanak, oso gurari xume bat eskatzeko: shatranjean -xakearen antzeko antzinako mahai-joko bat- aritzeko lehiakide bat. Aita-alabak zur eta lur geldituko dira lehenagoko iratxoaren ordez haren alaba Ayu azaltzen zaienean, sultanaren guraria betetzeko asmotan. Iratxo txikia, ordea, oso gaztea da, eta ez da ondo moldatzen ez shatranjean, ezta magia kontuetan ere. Horren ondorioz, neskatila biek eta haien lagun Ahmedek oso urrunera egin beharko dute bidaia, Ayu iratxo eskarmentu gabearen hanka-sartzeak zuzentzeko.

Álvaro Ortizek zinez baliatu ditu bere kontalari dohainak irakurle gazteenen mesedetan, eta

mitologia klasikoaren kutsua duen abentura guztiz modernoa sortu du. Elkarrizketa arinek, nonahi azaltzen den umoreak eta marrazki dinamikoek osatzen dute Aragoiko egileak asmaturiko kontakizuna, eta haren eskutik barneratuko gara basamortuan eta urruneko jauregietan, Ayuren abenturen arrastoan. Gehiago etorriko ahal dira!

"Álvaro Ortizek badaki nola egin bere pertsonaiekin maitemindu gaitezen, beti haiekin egoteko gogoa izan dezagun. Ayu nire laguna izatea nahi dut!".

Enrique Lorenzo, *Los Futbolísimos* bildumaren marrazkilaria

"Álvarok iraganeko fabula bat dakarkigu, ikaskizun berriez josia. Huts eginez ikasteko eta perfektua ez izateko eskubide ia ahaztua errebindikatzen du, baita jende onaz inguratzeko beharra ere, apurka apurka haziz joango bagara. Gozokien modura oparituko dut liburu hau!.

Sara Soler, *Us* nobela grafikoaren egilea

ÁLVARO ORTIZ (Zaragoza, 1983) diseinu grafikoa eta ilustrazioa ikasi zuen. Zenbait komiki-lehiaketa irabazi ondoren, album kolektiboetan eta autoedizioetan plazaratu zituen bere lanak, harik eta Alhóndiga Bilbaok Angulemako Maison des Auteurs-en aritzeko bekari esker *Cenizas* (Astiberri, 2012) komikia sortu zuen arte. Santiago Garcíak koordinaturiko *Panorama* (Astiberri, 2013) antologian parte hartu zuen, eta Isabel Cebrián gidoigilearekin batera *Femmes des fraises* kontakizuna sortu zuen Oxfam-en *Viñetas de Vida* proiekturako (Astiberri, 2014). Murderabilia (Astiberri) plazaratu zuen 2014an, eta hurrengo urtean *Rituales*, Erromako Academia de Españan landutakoa. Jarraian, *Dos holandeses en Nápoles* (Astiberri, 2016) argitaratu zuen, Thyssen-Bornemisza museoarekin koedizioan, baita *Viajes* (Astiberri, 2016) ere. Helduentzat kaleratu dituen azken lanak *El murciélago sale a por birras* (¡Caramba!, 2020) eta *PRDRO y MAILI* (¡Caramba!, 2021) dira.


APUR BATEAN PENTSATU ONDOREN, KORRIKA ABIATU ZEN IRATXOAK EMANDAKO BI ILEAK GORDETZEN ZITUEN KUTXATXOAREN BILA.

ERRE ITZAZU, ETA HAN AGERTUKO NATZAIZU ESKATZEN DITUZUN GURARIAK BETETZEKO.
UALA!

IRATXOA ETORRARAZIKO ZUEN ILEA ERRE ZUEN SULTANAK, ETA AMINA ZAIN GERATU ZEN, IRATXOA NOIZ AZALDUKO.


KE URDIN USAINDUNEZ BETE ZEN GELA. ETA LANBRO MODUKO HURA GARBITZEN HASI ZENEAN...
...SILUETA BAT AZALDU ZITZAIEN GELAREN ERDIAN. EZ, ORDEA, HAIEK ESPERO ZUTEN BEZAIN HANDIA.
?
?
KAIXO!